

TREBAKUNTZA BASAURIKO UDALEAN

Basauriko Udal Euskaltegia

HASTAPENAK

- OINARRIAN: EUSKO JAURLARITZAREN **V. PLANGINTZALDIA (2013-2017)** eta BASAURIKO UDALAREN **ERABILERA PLANA**.
- ABIAPUNTUA: trebagaiei azaldu testuinguruaren araberako prestakuntza izango zela.
- BORONDATEZKO PARTE-HARTZEA. Hasieran, 4 langile prest.
- HASIERAKO HELBURUAK: erabilera-ohiturak aztertu, erabiltzeari beldurra kendu, motibazioan eragin, gaitasun komunikatiboak aztertu eta euskara lanean erabiltzen hasi.
- APURKA-APURKA, LANGILEEN INPLIKAZIOA LORTU. Gaur egun, 60 langile inguru.

GEHIEN-GEHIENAK HIZKUNTZA ESKAKIZUNDUNAK...

- BAINA EZ ZIREN GAI LANA EUSKARAZ EGITEKO: HE aspaldi lortu ostean, euskararekiko harremanik ez.
- MOTIBAZIORIK ETA BEHARRIK EZA.
- HE LORTZEKO PROZESUAREN OROITZAPEN TXARRA: ez ziren «euskaldun» sentitzen, nagia/beldurra/lotsa, Basaurin eskari urria...
- ADMINISTRAZIOKO ERABILERA-OHITUREN INERTZIAK ETA AJEAK.

Trebakuntza saioen bidez lortu nahi genuena:

- DINAMIKARI BUELTA EMATEKO GOGOIA PIZTU, eta ikasitakoa berreskuratu.
- LANGILEAK ERABILERA PLANEAN INPLIKATU.
- UDALEKO HIZKUNTZA-OHITURAK ALDATU: euskara eguneroko funtzioetan txertatu.

FUNTZIO/PROFIL EZBERDINETAKO TREBAGIAK

- Kiroldegietako begiraleak, gizarte-langileak, ekonomia arloko arduradunak, hirigintzakoak, administrariak, udaltzainak, liburuzainak, kultur etxeetako arduradunak...

Ondorioz, **OSO ZEREGIN KOMUNIKATIBO EZBERDINAK ETA SAIOAK (TALDEKA/BAKARKA) ANTOLATZEKO SAKABANAKETA HANDIA.**

- **TALDEAK ZELAN ANTOLATU GENITUEN?**
 1. Arloka/atalka, laneko jardunean euskararen presentzia normalizatzeko.
 2. Laneko funtzioen arabera, zeregin komunikatiboen arabera lanketa.

TREBAKUNTZA-SAIOEN METODOLOGIA

- EKINTZA KOMUNIKATIBO JAKINETARA BIDERATUTA.
- AHOZKOA NAGUSI hasieran (lehen hitza euskaraz), eta, apurka-apurka, IDATZIZKORAKO JAUZIA (e-mailak, gutunak, oharrak, jakinarazpenak, dekretuak, txostenak...).
- NORBERAREN TESTUINGURUA KONTUAN HARTUTA ETA INTERPRETATUTA (langile bakoitzak bere testu-generoak, ahozkoak zein idatzizkoak).
- TALDEKAKO NAHIZ BANAKAKO ESKU-HARTZEAK.
- IKASLEAK EGOERA ERREALETAN JARDUTEN IKASTEN DU.
- EGOERA ERREALETAN PRESENTE EGOTEN GARA TREBATZAILEAK, ZIURTASUNA EMATEKO.

KOHERENTEA CURRICULUMAREKIN

TESTUINGURUA:

- IGORLEA
- HARTZAILEA
- EDUKIAK
- HELBURUA
- TOKIA
- ARLOA
- KANALA

EKINTZA KOMUNIKATIBO ETA TESTU ERREALAK
LANDUZ.

ZAILTASUN/AUKERA PEDAGOGIKOAK

- ADMINISTRAZIOKO HIZKERARI ETA ITZULPENARI OSO LOTUA.
- IDATZIZKOAN: korredakzioa, eta Antilingua gainditu.
- AHOZKOAN: material eredugarriak topatzeko zailtasunak.
- ZERBITZUAREN LAN-PREMIAK ETA KLASEEN EGONKORTASUNIK EZA.
- BANAKAKO ESKU-HARTZEAK (TUTORETZAK): trebakuntzako lan-zama biderkatzen du.
- EUSKARAZ ERE FUNTZIONATZEN HASTEAK, LAN-ZAMA HANDITUKO OTE DUEN BELDURRA.
- UDAL EUSKALTEGIKO IKASLEEI UDAL DINAMIKAK EZAGUTARAZTEA (ikasleak, izan ere, herritarrak ere badirelako).

BESTELAKO TRESNAK

- TREBAGUNE foroa (Bizkaiko beste udal batzuetako esperientziak partekatzeko).
- «BIZZ» aplikazioa Intraneten (Berrikusketak, Itzulpenak, Zuzenketak eta Zalantzak).
- «BASAERABILTZEN» bloga.
- TESTU-ERAUZLEA (Elhuyarren TermKate aplikazioa), hiztegitxo terminologikoak sortzeko.
- Basauriko Udalaren ESTILO LIBURUA (egitekotan).

BESTELAKO ZAILTASUNAK

- ARDURADUN POLITIKO ZEIN TEKNIKO ASKOREN INPLIKAZIO FALTA, ETA, ONDORIOZ, EUSKARAZ LAN EGITEKO BEHARRIK EZA: HITZETATIK EKINTZETARA PASATZEKO BEHARRA.
- HERRITARREN ESKARI URRIA.
- EUSKARAK ZEHARLERROTASUNIK EZ.
- ASKORENTZAT «LOS DE EUSKERA» GARA.
- EUSKARAZ IKASTEKO ESKAINTZAN, MODULAZIO BERRIEN BEHARRA.
- HASIERAN, «LAN BIKOITZA» EGITEAREN BEHARRA.
- INERTZIEKIN HAUSTEKO ZAILTASUNAK.

GURE HAUSPOA TREBAGAIEN BALORAZIOETAN: «Zein da trebakuntza-saioei buruzko zure balorazioa?»»

- «Baliagarriak dira, egunen batean administrazio elebiduna izateko bultzada gisa».
- «Birpasatzeko, hitz egiteko, idatziak ulertzeko aproposa».
- «Nire lana herritarrei arreta ematea da, eta, horregatik, niretzat beharrezkoa dela uste dut».
- «Nire kasuan, hamasei urte neramatzan euskara erabili gabe, eta aukera ona izan da lanarekin lotutako gauzetan erabiltzen hasteko».
- «Ahozkoa lantzeko, eta bilerak eta aurkezpenak egiteko segurtasuna lortzen ari naiz».
- «Gure lanean herritarrekin harreman handia dugu, bai ahoz bai idatziz; eta, horretarako, trebakuntzak ematen digun euskarria derrigorrezkoa da».